



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.aoiz.es – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

1. zenb. – 2017ko Otsaila
URTARRILEKO LABURPENA

BERRIEN BULETINA SORTU DA

Agoizko Udalak bultzada berezia eman nahi dio udalean sortzen diren berrien hedapenari. Horregatik, eskaini nahi du tresna digital berri hau, gure herrikoek izan dezaten udalean eta herrian sortzen diren lan eta berri guztien berri. Buletin hau plazaratuko da udalak Facebooken duen orrialde ofizialean, web-orrian hala nola Osasun Etxean, Jubilatuen Elkartean, Udal Bulegoetan eta Kultur Etxean eskura izanen duzuen paperezko edizio batean.

Berrien buletin hau e-maillez jaso nahi baduzu, igorri mezu bat comunicacionaoiz@gmail.com-ra, eta bertan adierazi gaia, hots, buletina.

GAI OROKORRAK

Agoizko Udalak hiru pertsona kontratatzea onetsi du

Agoizko Udalak 2017ko urtarrilaren 11n egindako bilkura berezian hiru langile kontratatzeko oinarriak onetsi zituen. Lan anitzetan arituko dira, udalaren zerbitzura, lanaldi osoz, hamabi hilabe-

tez eta D mailako lansaria jasoko dute. Gizarteratzerako bermatutako errentaren jasotzaileei zuzendutakoa da. Probak otsailaren 13an egin ziren.



Mankomunitateen deialdiak

IRATI Hiri Hondakin solidoen Mankomunitateak berriki onetsi du lan anitzeko peoi bat kontratatzeko izangaien zerrenda. Mankomunitateak zerrenda erabiliko du entitatean sortzen diren beharretarako. Otsailearen 10ean egin ziren hautaketa probak.

Modu berean, **Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak** deialdi bat egin du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan gizarte langile zerrenda bat osatzeko. Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak zerrenda erabili nahi du aldi baterako kontratuak egiteko. Probak pasa den otsailaren 9an egin ziren.

Tokiko mapa aldatzeko partaidetza prozesuaren bigarren fasea hasi da

Urtarrilaren lehen astean Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazio Departamentuak aurkeztu zuen tokiko mapa aldatzeko proposamenaren zirriborroa. Bilkura Iruberrin egin zen, eta bertan, proiektuaren zehaztasunak eman zituzten Isabel Elizalde kontseilariak, Xabi Lasa zuzendari nagusiak eta departamentuko teknikariek. Zirriborroaren edukiaren inguruko informazioa eman zuten eta bertaraturakoek plazaratutako galderari erantzuna eman zieten.

Guztira berrogeita hamar alkate eta zinegotzi baino gehiago joan ziren bilkura informatibo horre-

tara, zeinetan Gobernuak zehaztu baitzituen Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, teknikariek eta beste departamentuaren artean prestatutako lanaren lerro nagusiak.


Urtarrilaren 24an Iruberrin ere, bigarren bilkura bat egin zen. Horren xedea zen administrazio bakoitzak (udalak, eskualdeak eta Nafarroako Gobernuak) izan diren konpetentziak eta finantzabidea jasotzen dituen dokumentua eztabaidatzea.

Gobernuak proposatutako hasierako dokumentu horretan propo-

satzen da gaur egun Nafarroak dauden mankomunitate guztiak desagerraraztea eta horien ordez 13 eskualde sortzea, oinarritzko honako zerbitzu hauek emateko: ura, hondakina keta gizarte zerbitzuak; horietaz gain, udalek edo gobernuak berak delega litzaketenak.

Eztabaidak otsailaren bukaeran izanen dira, eta martxoan entitatek gobernuari aurkeztuko dizkiote bere ondorioak. Ondoren, gobernuak bultzatuko ditu lege proposamenak eta Parlamentuari igorriko dizkio.

Mapa de la distribución de las comarcas de Navarra



Las 13 comarcas	
TOTAL	
• Suma población 2015	640.790
• Superficie km ²	9.604
• Número municipios	272
AM PAMPLONA	
• Suma población 2015	344.255
• Superficie km ²	354
• Número municipios	17
BIDASOA	
• Suma población 2015	22.445
• Superficie km ²	798
• Número municipios	21
NOROESTE	
• Suma población 2015	7.366
• Superficie km ²	336
• Número municipios	8
PIRINEO	
• Suma población 2015	5.519
• Superficie km ²	1.245
• Número municipios	30
PREPIRINEO	
• Suma población 2015	7.206
• Superficie km ²	900
• Número municipios	15
RIBERA	
• Suma población 2015	87.254
• Superficie km ²	911
• Número municipios	19
RIBERAALTA	
• Suma población 2015	31.932
• Superficie km ²	435
• Número municipios	9
SAKANA	
• Suma población 2015	20.504
• Superficie km ²	306
• Número municipios	15
SANGÜESA	
• Suma población 2015	8.194
• Superficie km ²	488
• Número municipios	13
TIERRA ESTELLA	
• Suma población 2015	52.984
• Superficie km ²	1.610
• Número municipios	65
VALDIZARBE	
• Suma población 2015	14.003
• Superficie km ²	522
• Número municipios	21
VALLES	
• Suma población 2015	12.427
• Superficie km ²	751
• Número municipios	20
ZONA MEDIA	
• Suma población 2015	26.701
• Superficie km ²	948
• Número municipios	19

Agoitzek bortizkeria matxista errefusatu du

Portugaleten eta Burlatan izandako azken hilketak matxisten ondoren, Agoizko Udalak bat egin du Euskal Herriko emakumeen Munduko Martxak deitutako elkarretaratzeekin, eta bi hilketak horiekiko gaitzespena adierazi du.



Halaber, udalak atxikimendua adierazi dio Burlatako Udalak herri horretan izandako erailketa eta gero egindako osoko bilkura berezian aho batez onetsitako adierazpen instituzionalari.



Udalak eta herriko kolektiboek Chrysallis-ek bultzaturiko kanpainaren alde

«Badaude zakila duten neskek eta alua duten mutilak». Esaldi horrekin Euskal Herriko Chrysallis Elkarteak kanpaina bat abiatu du, gizartea hauren transexualitateaz jabetu dadin.

Agoizko Udalak, sarean kolektiboak eta Haur Eskolak bat egin dute inizatiba horrekin eta kanpainaren alde agertu dira, denon errespetua eta onarpenagatik.



Atxikimenduz haztea programaren 2. edizioa

Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bigarren urtez bultzatu du ATXIKIMENDUZ HAZTEA izeneko programa. Taldean eginiko saioak dira, Aser Sesma terapeutak zuzendurikoak. Bertan 0-7 urtean

biarteko haurrak dituzten familiei hazkuntzarekin lotutako gaiak jorratzen dira. Programa pasa den urtean hasi zen 22 familiarekin; eta horietako 11k jarraitzen dute bigarren maila batean. Gainera,

urtean 16 familia berri sartu dira hasiera mailan.

Karekin Kulturak antolatu eta kudeatu du programa hau.

Enpleguaren balantzea, 2016.enean

%9,77 jaitzi zen langabezia Agoitzen (Nafarroan %7,18a), eta gaur egun 203 bat langabe daude. Jaitziera eman zen adin tarte guztietan, industria eta zerbitzuen arloetan, eta jaitziera bereziki azpimarratzekoa da emakumeen artean, %14,28 jaitzi baitzen.

Agoizko Udaleko Garapen Agentziak bultzatzaile eta enpresen 23 proiektu kudeatu zituen; horietako 13k aurrera egin zuten. Zazpi proiektu izan dira sortu berriak eta beste sei negozioa gaurkotzeko edo egonkortzeko, eta hamabost lanpostutan eragin izan dute.



Horretaz gain, lana bultzatzeko tailerrak eta enpresa tutoretzak egin dira, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren batera lan egin da, laguntzari buruzko langabeei zuzenduriko lau hitzaldi informatibo emateko.

Azkenik, 2016. urte honetan, Udala gestionatzen hasi da Larraineta etxadian dauden profesionalentzako bulegoak. Proiektu berriak dituzten enpresa eta zerbitzu profesionalen eskura daude.

INGURUNEA ETA ONDAREA

Udalak herriko zuhaitz berezien aitortpena egin du

Hamar dira Agoizko Udalak "bereztzat" hartu dituen zuhaitzak. Izendapen hori jaso dute haien tamaina, ezaugarriak edo adinagatik. Nafarroako Kutxa Fundazioak zuhaitz horiek ezagutzera emateko egindako proiektua finantzatu du: zuhaitz bakoitzaren oinean seinaleztapen bat jarri da, berei zena latinez, euskaraz, gazteleraz, arabieraz eta errumanieraz agertzen duena; eta horretaz gain, gida bat kaleratu

da haiek identifikatzen laguntzeko (udalaren web-orritik jaitsi daiteke). Gainera, udalak osoko bilkuran onetsi zuen zuhaitz horiei babes berezia ematea, hiriko natura-ondarearen parte diren aldetik.

Proiektua Toki Agenda 21-ean jasotako ekimenetako bat da. Zuhaitzak ezagutzeko gonbitea egiten dizuegu.

Agoitz, Fitur-en

Nafarroak FITUR-en aurkeztu zuen duen natura- kultura- eta historia-aberastasuna, dituen ibilbideen bidez. Mapa-gida bat kaleratu du, «Caminos-Bideak» izenekoa, 30 ibilbide jasotzen dituena; horien artean dago Agoizko «Irtati Ibaia-San Roman Ermita» ibilbidea.

Gida jaisteko prest dago Nafarroako Gobernuak atarian; eta eska dezakezu ere udaletxeko bulegoetan.



Kanpoaldeko buzoia, liburutegiko berrikuntza

Agoizko liburutegiak zerbitzu berri bat estreinatu du. Eramandako liburuak eta DVD-ak itzultzeko erraztasuna emateko pentsatuta dago. Kanpoaldeko horma batean jarri da.

Garrantzitsua da bertatik sartu aurretik plastikozko poltsa batean sartzea, honda edo manatu ez daitezela.



EUSKARA

Agoizko Udalak bat egiten du Euskararen Nafar Kontseiluak egindako aldarrikapenarekin

Agoizko Udalak bat egiten du Euskararen Nafar Kontseiluak egindako aldarrikapenarekin.

Aldarrikapenaren bidez euskara gaztazka politikoak ez elikatze gonbitea egiten da, hala nola balioan

jartzeko, Nafarroako berezko hizkuntza den aldetik, eta aberastasuna eta aniztasuna bultzatzeko.

Kontsultatzeko, jaisteko esteka bat jarri da udalaren web-gunean.



KULTURA ETA JAIK

Errege Magoek magia ekarri zuten Agoitzera

Berriz eren Errege Magoak Agoitzera hurbildu ziren haurrei ilusioa emateko. Urtero egin ohi dute-

nez, adinekoen egoitzara joan ziren, Bilaketa txarangarekin batera, gure nagusiei opariak banatzera.

Ondoren, erregeek herriko kaleetan barna joan ibili ziren, jendez gainezka jarri zen pilota-lekura ailegatu arte. Bertan haitza hartu zuten Erregeek, Unai Lako alkateak eta Antonio Moso parrokoak.

Aurtengo nobedadea izan da udal txikiko alkate berriaren parte hartzea. Olentzero etorri zenean egindako moduan, Arxel González García alkate txikiak hitz batzuk zuzendu zien Erregeei eta pilota-lekuan bertaratutako guztiei.



2017ko urtarrilean izandako kultur jardueren laburpena

Pasa den urtarrilaren 8an, Eguberietako programazioari bukaera emateko, "Cletaren Ametsa" izeneko Gus Marionetasen txotxongilo ikuskizunaz gozatzeko aukera izan genuen.

Urtarrila osan zehar, Kultur Etxeko areto nagusian, "Ikustekoa loreak eta bodegoiak" erakusketa kolektiboa egon da. Bertan, honako artista hauen lanak ikusgai zeuden:

Itxaso Apat, Juana Mari Ayanz, Pilar Ezpelta, Josefina Eguaras, M^a Isabel Eguaras, Socorro Erdozain, Saray García, Sagrario Itoiz, Julio Sainz, Juan Carlos Unzue, Pilar Vergara, Sagrario Vidondo eta Toño Villanueva. Beren lanekin Aretoa koloreztatu zuten.

Eta hilari bukaera emateko, urtarrilaren 27 eta 28an, Irati antzerki taldeak "Avignon-eko

andereñoak" antzezlanaren taularatu zuten, arrakasta handiz. Saioa, gainera, baliatu zuten Asun Cabellori omenaldi txiki bat eskaintzeko; berriki hildakoak taldearen arima izan zen.

Udalak eskertu nahi du hainbeste urtetan zehar Irati antzerki taldean Asunek egindako lana.



2017. urteko Kulturgunearen lehenengo bilkura

Pasa den urtarrilaren 26an, Agoizko Kultur Etxean, Kulturgunea izeneko bilguneak 2017. urteko lehen bilkura egin zuen.

Gunean parte harzen duten entitateek aurtengo bilkuren egutegia adostu zuten, hala nola bilkura horietako edukiak, Sanisidroak, abuztuko jaiak, Sanmigelak... besteak beste.

Modu berean bilkuran onetsita gelditu ziren Agoizko kultura elkarte eta entitateen aktibitatea bultzatzeko aurtengo diru-laguntzen deialdiaren oinarriak. Diru-laguntza horietarako erreserbatutako aurrekontua 2.000 eurokoa da.

Horretaz gain, Udalak herriko Kultur Entitateekin sinatzen dituen hitzarmenen proposamen eko-

nomikoa berrets izen. Kontzeptu horretarako aurtengo aurrekontua 46.883 eurokoa da, eta bederatzi izanen dira entitate onuradunak. Otsailaren 1ean eginekoko osoko bilkuran berretsi ziren foroan onetsitako proposamenak.

Azkenik, bilkura parte hartu zuten entitateek, hala nola udal arloek, azaldu zuten aurtengo garatuko dituzten proiektuen egitaraua.



KULTURA PARTE-HARTZAILEA PROZESUAN BLOGA ● ESPACIO DE COMUNICACIÓN PARA EL PROCESO PARTICIPATIVO DE CULTURA